


SINESMENAK ETA USTEAK. ZENTZU KOMUNAREN ALDE

Agustin Arrieta – Urtizberea
Alberdania, 178 or.
Irun, 2010

Euskal Herriko Unibertsitatean filosofia irakasle den Agustin Arrieta – Urtizberearen (Errenteria, 1962) liburu bat argitaratzen den aldi oro pozteko arrazoiak dauzkagu, ez baita oso ohi-koa gure artean, euskaraz, arazo filosofiko mardulei espiritu dibulgatzailearekin argitasunez eta zorrotasunez ekitea. Txalotzekoa da EHUko irakasleak arazoak planteatzeko duen modu garbia bezain zintzoa: ulertzen errazak diren adibideak erabiltzen ditu konpon-tzen zailak diren arazoak argitzeko, arazo filosofikoen alde ezberdinak aztertuz beti, baita bere tesien egokitasuna zalantzan jar ditzaketenak ere¹. Zentzu horretan, liburuaren estiloak edukiarekin bat egiten du: zentzu komunaren (analisi arrazional kritikoaren) aldarrikapena egiten du autoreak bere ideiak zentzu komunaren (espiritu arrazional kritikoaren) bidez analizatuz. Horrek, noski, ez du esan nahi derrigorez bere tesiekin bat egin behar dugunik (oro har, benetan zentzuzkoak diren arren).

Oraingo azkeneko lan honetan espiritu dibulgatzailearekin heltzen dio usteen, hauen errotze-prozesuaren eta

ondorio praktikoaren inguruko gogoetari. «Sinets al dezaket nahi dudan guztia? ... Nola finkatzen edo errotzen dira uste, iritzi eta sinesmenak? Zein da uste, iritzi eta sinesmenen eginkizuna?» (13. or.) moduko galderei erantzutea da liburuaren helburu nagusia. Aldi berean, erlijio-sinesmenen ustezko izaera bereziaren auziaren inguruan ere ikuspegi zehatza eman nahi du autoreak.



1. irudia. *Sinesmak eta usteak*. Zentzu komunaren alde argitalpenaren azala.

Liburuaren hasiera-hasieratik aurkezten du egileak lehenengo tesi garrantzitsua: «... *zerbait* uste (edo sinesten) dugunean, zerbait hori egiazkotzat hartzen dugu» (17. or.). Ildo

1. Ez da estilo-erabaki hutsala argitasunez eta zorrotasunez idaztea, George Orwell-en hitzek ingelesezko idazketaren inguruan argitzen duten moduan: «Modern English, especially written English, is full of bad habits which spread by imitation and which can be avoided if one is willing to take the necessary trouble. If one gets rid of these habits one can think more clearly, and to think clearly is a necessary first step toward political regeneration: so that the fight against bad English is not frivolous and is not the exclusive concern of professional writers» (George Orwell, 1946, «Politics and the English language», <http://mla.stanford.edu/Politics_&_English_language.pdf> [2011ko urtarrilaren 3an ikusia]). Idazkera filosofikoaren inguruan, gure artean, Jon Sudupe filosofo azkoitiarrak ere antzeko ideiak aldarrikatzen ditu (ik. J. Sudupe, 2010, «Hizkera argia», *Berrria*, 2010/11/28).

honi jarraituz, bigarren atalean (19.-27. or.), usteen bi ezaugarri garrantzitsu aipatzen dira: alde batetik, usteek egiarekin (eta, beraz, justifikazioarekin konektatutako auziekin) lotura zuzena daukate; bestetik, usteek eguneroko jokabidearekin (eta, beraz, etikarekin eta politikarekin) lotura zuzena daukate ere. Bi ezaugarri horiek ukatzen dute usteen izaera hertsiki pribatua dela, usteak finkatzearen arazoaren dimentsio publikoa azpimarratuz. Gauzak horrela, usteek egiarekin lotura zuzena dutelako, sinestea guztiz librea ez dela ondorioztatzen du Arrieta – Urtizberek (22. or.); hau da, ezin dugu nahi dugun edozer sinetsi edo uste izan, horrela egingo bagenu usteen eta egiaren arteko lotura erabat hautsiko litzatekeelako. Gainera, usteek eta ekin- tzeak lotura zuzena duten neurrian, badago (edo egon beharko luke) uste izatearen etika bat², usteek egiarekin eta analisi arrazional kritikoarekin (zentzu komunarekin) konprometituak egon behar dutela azpimarratzen duena: «... nolako ustea, halako jokabidea. Eta jokabideak eragina dauka edo izan dezake besteengan... Besteekiko harremanak behartzen gaitu usteak ahalik eta ongien oinarritzera» (25. or.).

Hirugarren atalean oso eztabaidagarria izan daitekeen usteen mailaketa ezberdinaren tesia aurkezten da (28.-35. or.). Uste dut hemen Arrieta – Urtizberek David Hume (1711-1776) filosofo eskoziar handiak *A Treatise of Human Nature* (1739-1740) liburuko 3. liburukian planteatzen duen izatearen

eta izan beharraren arazoaren ildoari jarraitzen diola, usteen esparruan bi maila bereizi daitezkeela baieztatuz: «Agian, gure uste guztiak ez daude maila berean. Esate baterako, Jainkoaren edo nazioaren gaineko auzietan, usteak aldatzeko askatasun ia osoa daukagu. Hau da, erlijio eta politika kontuak bereziak dira, eta tratamendu berezia merezi dute. Antzekoa esan genezake kontu etiko eta estetikoetaz buruz ... Esparru horietan ez da aztertzen *nolako den mundua, munduak nolako izan behar duen* baizik ... Esparru horiek *balioen eremua* osatzen dute ... Esparru horietan, hasiera batean behintzat, askatasuna handiagoa dela ematen du; badirudi usteak nahietatik eta desioetatik gertuago daudela esparru horietan» (33-4 or.).

Hortaz, usteen bi maila daude: alde batetik, mundua nolako den dioten usteen esparrua; bestetik, munduak nolako izan behar duen diotena. Lehengo esparruan uste zientifikoak, zentzu komunekoak, uste filosofikoak eta erlijiosoak ematen dira, hauek guztiek ematen baitizkigute mundua nolako den inguruko mezuak (35-9 or.). Bigarren esparruan, aldiz, zientziak ez omen du ekarpen handirik egiteko aukera, filosofia, zentzu komunak eta erlijioak munduak nolako izan beharko lukeen inguruko oharrek eskaintzen dizkiguten arren (39.-40. or.). Eskema honi jarraituz, laugarren atalean, mundua nolako den galderaren inguruko usteak finkatzeko ereduak hiltzen die EHUko irakasleak.

2. Mark Rowlands filosofo galestarrak antzeko ideiak aurkeztu ditu: «Let's accept that in the case of interesting moral disagreements, we can't separate the factual beliefs from the moral beliefs. Great! We can now try to settle moral disputes by attacking or defending *factual* beliefs ... Why is there so much trouble in the world? Because there are profound moral disagreements between cultures. And why are there such disagreements? Basically, it's because large numbers of people hold *really, really stupid beliefs* about the world. And really, really stupid beliefs can have serious moral consequences» (Rowlands, M., 2003, *The Philosopher at the End of the Universe. Philosophy explained through science fiction films*, London, Ebury Press, 280. orrialdea).

Eskema bikoitz honi helduz, munduaren izaeraren inguruko usteak finkatzerakoan, hiru eredu aztertzen eta kritikatzeko dituzte Errenteriako filosofoak: Ostrukaren eredia («... sinets dezagun entzundako edo bururatutako lehenengo gauza, eta gero tinko euts diezaiozun horri» (45. or.)), Autoritatearen eredia (analisi kritikorik gabe autoritate batek (gurusoak, irakasleak, zientzialariak, apaizak, politikariak, etab.) dioena besterik gabe sinestea (49.-51. or.)) eta Koherentziaren eredia (usteak gure gainerako usteekin bat egiten duten neurrian bereganatzea, gure aurreko iritzi edo sineskerekin bateragarriak ez diren usteak alboratuz (52.-53. or.)) deritzenak. Hiru eredu hauetako bakoitzari kritika ezberdin zehatz egokiak egiten zaizkion arren, hirurek komunean duten arazo larriena egiarekin duten lotura ahula edo akzidentala da; horregatik ez dira munduaren nolakotasunaren inguruan usteak finkatzeko eredu baliagarriak (ez behintzat modu isolatuan hartzen baditugu). Dena den, hiru eredu horietaz aparte badago autoreak hobesten duen laugarren eredu bat: Zentzu Komunaren eredia, hain zuzen ere.

5. atalaren helburua laugarren eredu horren dohainak aztertzea da, izan ditzakeen arazo batzuekin batera. Zentzu komunaren baliabide batzuk, perfektuak ez diren arren, zentzumenen bidez eskuratzen dugun informazioa, oroimena, indukzioa, dedukzioa eta abdukzioa ditugu (58.-60. or.). Baliabide horiek guztiak eguneroko bizitzan erabiltzen ditugu bai, baina ikerketa zientifikoan erabiltzen diren baliabide garrantzitsuak ere badira. Beraz, Zentzu Komunaren eredia, eguneroko bizitzan naturaltasunez erabiltzen dugu, baita metodologia zientifikoan ere (58. or.).

Orduan, munduaren izaeraren inguruko usteak finkatzeko, lau eredu aztertzen dira liburuan eta guztiok, eguneroko bizitzan, lau eredu horietaz baliatzen garela onartu egiten du egileak. Dena den, munduaren inguruko usteak finkatzeko lau eredu ezberdin horien arteko erlazioa nolakoa den aztertzeke dago: «... zein da eredu ezberdin horien arteko erlazioa? Ba al dago eredu nagusia edo funtsezkoena?» (75. or.). Argudio ezberdinak erabiliz, Zentzu Komunaren ereduaren nagusigoa aldarrikatzen du autoreak. Autoritatearen ereduaren eta Zentzu Komunaren ereduaren arteko harremanari dagokionez, autoritatearen lekukotasuna jasotzeko Zentzu Komunaren eredia jo behar dela eta Zentzu Komunaren eredia, Autoritatearena ez bezala, ezinbestekoa edo saihestezina izateaz gain batere arbitrarioa ez dela baieztatzen da, egia baitu helburu nagusi (77.-79. or.). Koherentziaren eta Zentzu Komunaren ereduaren arteko erlazioari dagokionez, bi eredu horien arteko gatazka gertatzen denean, koherentzia zentzu komunaren mendekoa dela azpimarratzen da (80. or.). Azken finean, baieztatzen dena zera da: Zentzu Komunaren eredia beste hiru ereduarekin talika egiten duenean zentzu komunari jarraitu behar zaiola, gainerako ereduak beraren menpekoak baitira. Gainera, Zentzu Komunaren eredia (beste hiru ereduak ez bezala) irekia da, hau da, ez da guztiz zitura eta horregatik beti kritikatu daitezke eredu horri jarraituz eratorritako usteak zentzu komuna bera erabiliz. Horiek guztiak lirarteke, labur esanda, Zentzu Komunaren eredia beste hiru ereduaren gainetik kokatzeko zioak (munduaren nolakotasunaren inguruko usteak finkatzerakoan).

8. eta 9. atalak zientziaren eta erlijioaren nahiz zientziaren eta filoso-fiaren arteko harremanen azterketaz arduratzen dira hurrenez hurren. Erlijioek lehen ezberdindutako usteen bi mailetan ideia zehatzak eskaintzen dituzte: alde batetik, mundua nolakoa den inguruko ikuskera eskaintzen dute, bestetik, munduak nolakoa izan behar-ko lukeen inguruko. «Edozein erlijio-tan, edo erlijio gehienetan, modu batean edo bestean, ahalmen adimentsu eta ikusezinetan sinesten da» (101. or.). Horren adibide garbia arimen existen-tziaren inguruko usteak lirateke (hilez-korrak, adimentsuak, etab.), hau da, erlijioek arimez osaturiko mundua deskribatzen dute. Arrieta – Urtizberearen aburuz, usteak finkatzeko egokiena den Zentzu Komunaren ereduak ezin ditu horrelakoak onartu: «... arimak *zientziatik at* (edo *zentzu komunetik at*) geratuko lirateke, ez baitira materiaz-koak» (106. or.). Hortaz, munduaren nolakotasunaren azalpena zientziari edo zentzu komunari dagokio, ez erlijioari. Munduak nola izan behar-ko lukeen auziaren inguruan, Aita Santua-ren hitz batzuk aipatzen dira: «“Erlijio-rik gabe ez dago moralik edo etikarik. Ez dago baliorik”» (123. or.). Ba ote dauka erlijioak balioen auziaren inguruan ikuspegi pribilegiaturik? Liburuan katolizismoaren eredu lantzen da erlijioaren eta etikaren arteko lotura aztertzeko: «Hiru iturri nagusi aipa dai-tezke lotura hori funtsatzeko. Batetik, Jainkoaren hamar agindu. Bigarrenik, Jesukristoren beraren bizitza. Eta, hi-rugarrenik, infernu betierekoaren me-hatxua (edo zero zoriontsuaren saria)» (149. or.). Kontua da arrazoi ezberdi-nengatik hiru iturri horiek desegokiak di-rela (149.-153. or.), adibidez: 1. Hamar

agindu horietan soilik oinarrituko den etikarik ez dago eta, gainera, nondik datorkie hamar agindu horiei beren ba-lio etikoa? Lekuren batetik etortze-kotan etikatik bertatik etorriko litzaeke, beraz, ez dugu iturriaren arazoa kon-pondu; 2. Jesukristoren bizimodu ere-dugarriaren inguruan, esan daiteke baita ere eredu horri jarraitu behar zaion ala ez jada arazo etiko bat dela eta, beraz, bizimodu eredugarri batek ezin duela etika bera funtsatu (gainera, za-lantzan jar daiteke Jesukristo benetan eredu etiko ona denik); 3. Zeruaren eta infernuaren inguruan, ez zaigu espli-katzen zergatik den eraginkorragoa betiereko zigor-sarien sistema gure zigor-sarien sistema arruntak baino, gainera zigorraren inguruan ditugun ideia moral batzuen aurka jotzen du zuzenean sistema horrek, adibidez, zigorraren neurritasunaren ideia-aren aurka.

Zientziek mundua nolakoa den azaltzeko funtzioa betetzen dutela ikusi ondoren, filoso-fiak betetzen duen paperaren azterketari ekiten dio Erren-terriako filosofoak. Zein da filoso-fiaren funtzioa edo zeregina? Bertrand Ru-ssell (1872-1970) filosofo britainiarrari jarraituz, honako hau dio liburuak: «... funtsezko ezaugarriei dagokienez, filo-sofiaren eta zientziaren arteko desber-dintasunik ez dago: ez dago filosofia-rentzat irekita dagoen eta zientziaren-tzat irekita ez dagoen *jakintza-iturri be-rezirik*» (110. or); hau da, filoso-fiaren helburua, zientziarena bezala, ezagu-tza da. Dena den, horrek ez du esan nahi filoso-fiak berezko ezaugarririk ez duenik³: zientzia partikularrak ez beza-la, filosofia ikuspegi orokorra emateko gai da (ikuspegi holista eskaintzen du);

3. Filoso-fiaren berezko ezaugarrien eta bete ditzakeen funtzioen inguruko gogoeta zabalagoak eta zehatzagoak eskaini zituen autoreak *Zertaz dihardu filoso-fiak?* lanaren (Jakin irakurgaiak, Donostia, 2002) sarrera atalean (19.-45. orrialdeak).

filosofiak, beste diziplinek ez bezala, zientzia partikular ezberdinetan maieiatzen diren kontzeptu komunak aztertzen ditu; azkenik, filosofiak izaera kritikoa dauka, bere ikuspegia ez baita zientzia partikularrena bezain mugatua. Filosofiarene ikuspegi honen arabera, filosofia zientziarekin (eta zentzu komunarekin) harremanetan dagoen diziplina da (112. or.).

Gogoeta hauekin heltzen gara liburuaren 10. atalera, filosofiarene eta zientziarene arteko erlazioari dedikaturikora. Filosofia eta erlijioa arazo berdinei erantzuten saiatu diren arren, horrek ez du inplikatzene diziplina parekoak direnik: «... gogoeta honetan aurkeztu dugun ikuspegiarene arabera, filosofia zentzu komunarene aldean agertzen zaigu; erlijioa, ordea, zentzu komunarekin eztabaidan eta, zenbaite-tan, talkan» (116. or.).

Usteek egiarekin lotura dutela errepikatzen da behin eta berriz liburuan zehar; hori dela-eta, zentzuzkoa dirudi egiarene kontzeptuaz jarduteak. Hori da 11. atalean egiten dena. Atal honetan pentsamendu *postmodernistak* egiarene kontzeptuari egin dizkion kritikak laburki aurkezten dira, hauek gainditzearene beharra azpimarratzeko helburuarekin. «Postmodernismoarene erreferentzia den Richard Rorty (1931-2007) pentsalariak dioenez, metafisikari santuak baino ez dira mintzatzene egiaz gaur egun. Rortyrene arabera, egiaz mintzatzene garenean norberarene interesak, edo taldeareneak edo botereareneak, ezkutatzene dira benetan. Egia ezkutaleku bat baino ez da» (125. or.). Hau gutxi balitz, gauzak ez dira hemen geratzene, egiarene kontzeptua ez baita postmodernoek kritikatzene duten bakarra, errealtatearene kontzeptua ere gogor kritikatzene baitute: «... errealtatearene norberak bere erara *eraikitzen* duene zerbait da. Ez dago errealtate

gordin eta garden bat. Errealtatearene eraikuntza bat da, gizakiak bere interesene eta premie ne arabera eraikitzen duene zerbait» (126. or.). Hona hemen egungo kondizio postmodernoa.

Kritika postmodeno hauen aurrean, Arrieta – Urtizbereak egiarene kontzeptu minimalista edo murriztua aldarrikatzene du: «Ez dago letra larriz idatzitako Egia absoluturik ... Postmodernoak Egia absolutu hori suntsitu nahi du ... Baina, horrela, letra xehez idatzitako egia xumea ez dute suntsitu, egia gure eguneroko bizitzako zati izatene jarraitzene baitu» (127. or.). Egia kasuz kasu aztertu behar den gauza da, kasu bakoitzerako bidea partikularra izanik (adibidez, fisikarene egia ez litzateke psikologiarene egiarene berdina izango, baina horrek ez du esan nahi bietako bat egia ez denik).

Postmodernitatearene kritikekin lotura zuzenean, 12. atala erlatibismoari dedikatuta dago: «... pentsalari askok eta askok aldarrikatu dute ez dagoela arrazionalagoa den (usteak finkatzeko) eredurik. Izan ere, arrazionala zer den testuinguruarene arabera da» (133. or.). Erlatibismoarene lelo nagusia norbera bere egiarene jabe dela dioena da, hau da, egia edo errealtate ezberdin asko leudeke munduan eta horie ne artean aukeratzeko irizpide arrazional objektiborik ez legoke. Hala eta guztiz ere, EHUKo irakasleak azpimarratzene duene moduan, ez da hain erraza erlatibistarentzat egia objektiborik ez dagoela baieztatzea absurdoan erori gabe: «... hanka sartzerik ez baldin badago, asmatzerik ere ez ... Antza denez, *egia erlatibo* adierazpenak absurdora eramaten gaitu. Agian, *egia* hitza bere hiztegitik erauztea da erlatibistak duene irtenbiderik egokiena. Baina ez du gustuko irtenbide hori. Izan ere, erlatibistak *egiazko mezu* bat gaztigatu nahi digu» (135. or.). Arazoa

modu batean edo bestean konpontzeko, egileak soluzio posible bat aipatzen du: edozein esparrutan erlatibista izateak ezinezkoa badirudi ere, posible izan daiteke esparru zehatz batzuetan erlatibismoa onargarria izatea. Gauzak horrela, munduaren izaeraren inguruko usteetatik munduak nolakoa izan behar duen inguruko usteetara igarotzean, erlatibismoa indartzen doa, hau da, bigarren esparruan erlatibismoa lehengoan baino indartsuagoa eta zentzuzkoagoa izan daiteke: «... etika eta estetikaren esparruetan erlatibistak eroso ikusten du bere burua. Zentzu komunaren eredia, hasiera batean behinik behin, ahul agertzen da esparru horietan» (137. or.). Dena den, autoreak ez du uste erlatibismo estetiko-moral hori onargarria denik. Elkarbizitza egokia bermatu nahi baldin badugu, argi dago erlatibismo moral muturrekoak ez gaituela bat ere lagunduko. Erlatibistarentzat onargarria izan daitekeen konponbide moduan hitzarmen sozialaren ideia aipatzen da: «Balioen eremuan erlatibismoa berezkoa izan daitekeen arren, denon arteko (edo gehiengoaren) adostasun bat lor daiteke. Eta, adostasun horretatik abiatuz, *egia artifizial* bat eraiki dezakegu» (138. or.). Azken buruan, erlatibismo moral muturrekoa ere ezinezkoa dela ikusten dugu, egia artifizial bat egia mota bat baita⁴ eta hori munduaren nolakotasunaren inguruko usteak nahiz munduak nolakoa izan beharko lukeen inguruko usteak finkatzeko orduan abiapuntu egoki nahikoa izan daiteke (egileak bere burua ikuspegi eraikitzaile horrekin konprometitu nahi ez izan arren).

Liburuaren azkeneko atala, 13.a, erlijio-sinesmenen eta balioen arteko

harremanaz jarduten da. Ez dira gutxi, filosofiaren historian, erlijio-sinesmenak beste gainerako sinesmenen parekoak ez direla aldarrikatu duten autoreak, hala nola: William James (1842-1910), Ludwig Wittgenstein (1889-1951) edo Soren Kierkegaard (1813-1855). Usteak finkatzeko Zentzu Komunaren ereduaren gainetik egongo lirarteke erlijio-sinesmenak; izan ere, erlijioak aipatutako bi esparruez aparte legokeen hirugarren esparru berezia osatuko luke, eremu berri horretan sinesteko askatasuna legokeelarik (145. or.). Autore hauek guztiek aldarrikatu dute sinesmen erlijiosoen izaera pribatua: «*James / Wittgenstein* ikuspegiaren arabera, erlijio sinesmenak, (ustezko) berezko ezaugarriak direla-eta, ohiko sinesmenak ez bezala, edozein kritika arrazionaletik libre geratzen dira; izan ere, pribatutasunaren zati dira» (147. or.). Errenteriako filosofoak onartzen du, zentzu pribatu honetan ulertuta, edozein erlijio-sinesmen onargarria dela, hots, erlijioaren ikuspegi mistikoa onargarria izan daitekeela, baina gauzak oso bestelakoak dira erlijioek publikoki munduaren izaeraren inguruan edo munduak nolakoa izan beharko lukeen inguruan mintzatzen direnean: «Kontua da argitzea erlijio sinesmenen jokia zertan den: edo, Jamesekin bat eginez, joko pribatua da (hori esaterik baldin badago), edo metodologia partekatu eta publiko bati lotzen zaio. Pribatua eta publikoa, aldi berean, ezin da izan» (148. or.). Hortaz, esparru pribatutik publikora pasatzen direnean, erlijio-sinesmenak gainerako sinesmenen mailan jartzen dira eta, beraz, bestelako usteen antzera, Zentzu Komunaren ereduaren menpeko bilakatzeko dira, hori baita egilearen arabera usteak finkatzeko eredu baliozkoena.

4. «Egia» kontzeptuaren eta egia mota ezberdin batzuen inguruko gogoeta kritikorako ikusi autore beraren *Egia Motak* liburua (Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2001).

Liburuaren azkeneko partea zentzu komunaren eta balioen arteko harremanari dagokio. Usteak finkatzeko Zentzu Komunaren ereduak praktikan nola funtziona dezakeen erakusteko, etika aplikatuaren arazo pare bati helitzen dio egileak (suizidioaren eta abortuaren auziei hain zuzen ere). Hirugarren atalean esandakoa ñabartuz, munduaren izaeraren inguruko usteen eta munduak nolakoa izan beharko lukeen usteen mailak elkarri lotuta daudela azpimarratzen du autoreak: «Edozein etikak gizakiaren eta errealtatearen gaineko ezagutza egokitik abiatu behar du, eta eskakizun horrek etika eta zentzu komunaren ereduak elkarrekin lotzen ditu. Zentzu komunak ematen digun zoru gainean eraiki behar da balioen erresuma, besteak beste, zentzu komuna erabiliz» (153. or.). Zentzu komunak (eta zientziak), bada, esatekorik edukiko luke balioen munduan, munduaren inguruko uste egokiak edukitzea ezinbestekoa baitirudi nolako mundua nahi dugun erabakitzerakoan. Horrek inpliketzen du etikaren jokoan ere zentzu komunak nagusi izan behar duela, erlijio-sinesmenen gainetik: «Etika kontuetan, Jainkoa aipatzeak ez du ezer konpontzen, erlijioa ez baita etikaren edo moralaren funtsa» (168. or.). Aipatu bezala, esparru pribatutik publikora pasatzen denean, erlijioak ikuspegi pribilegiaturik ez duela onartu beharrean gaude: «... erlijioari, nolabaiteko kontsolagarri gisa, atea irekita utzi behar zaizkio ... Haatik, egoera erabat aldatzen da erlijioak dimentsio pribatu horretatik espazio publikora jauzi egin nahi duenean ... Izan ere, espazio publikoa de-

nona da, eta, labur-labur esanda, publikoa dena metodologia publikoaz garatu behar da, eta hori da, zentzu komunaren ereduaren ezaugarri garbiena. Espazio publikoan dagoenak *kritikagarri* eta *eztabaidagai* izan behar du» (173. or.).

Esandako guztia kontuan izanda, zeintzuk lirategiak ideia hauek hezkuntzarentzat izango lituzketen ondorioak? «Munduaren eta balioen gaineko hezkuntza dela eta, dogmak, aurreiritzi eta uste mugiezinak erakutsi eta irakatsi beharrean, errealtatearen eza gutza egoki batetik abiatuz, baliabide arrazionalak erabiltzen eta kritika eta eztabaida arrazionalerako joera erakutsi eta irakatsi behar dira» (174. or.). Iruditzen zait azkeneko hitz hauek lotura zuzena dutela Platon-ek azaldutako giza bizitzaren eta hezkuntzaren ideal sokratikoarekin: «... hauxe dela gizakiarentzat on handiena, alegia egun oro bertuteaz eta elkarrizketan neure burua eta besteena aztertzen entzuten dizkidazuen beste gai batzuek mintzatzeari, eta gizakiarentzat azterketa gabeko bizitzak ez duela merezi ...»⁵. Erantzukizun moralak ez da soilik ekingizko eremura mugatzen, uste eta sineskeren inguruan ere erantzukizun moralak egon badago eta hezkuntza-sistemaren betebeharra izan beharko luke usteen azterketa kritikoa ahalbidetuko dituzten bitartekoak irakasteak. Inposaketa eta dogmatismoa nagusi diren garai hauetan gogoratu beharreko hitzak dira hauek.

Mikel Torres Aldave

5. Platon, 1999, *Sokratesen Defentsa*, Donostia, Jakin irakurgaiak (38 A).

